

Denbora esapideak

noizean behin sarritan batzuetan maiz	inoiz ez sekula ez behin ere ez gehienetan	askotan normalean eskuarki ia beti
--	---	---



1. Goiko hitzak erabilia, berridatzi esaldiak esanahi bereko beste esapide batzuk erabilia.

a. Sekula ez dut horrelakorik ikusi.

b. Noizean behin ondo dago horrelakorik egitea.

c. Berarekin egoten naiz noizbehinka.

d. Gu, normalean, eskolatik oinez etortzen gara.

e. Haiek askotan joaten dira mendira.

f. Batzuetan hobe da ezer ez esatea.

g. Nik, gehienetan, etxean bazkaltzen dut.

h. Maisua haserre dago eskuarki.

2. Erantzun galderei, esapide hauetako batzuk erabilia.

bi egunetik behin - noizean behin - astean behin - egunero - behin eta berriz - tarteka-marteka - gaurtik ... arte.

- Astelehenean herrira joan dira eta ostiralean itzuliko dira.
Noiztik noiz arte egongo dira kanpoan?
- Gaur entrenamendua daukazu, bihar ez, etzi ez, hurrengo egunean bai ...
Noiz daukazu entrenamendua?
- Ni asteazkenetan etortzen naiz liburutegira irakurtzera.
Zer maiztasunekin etortzen zara liburutegira irakurtzera?
- Ikasleek etxerako lanak egiteko, eskatu eta eskatu egin behar zaie.
Zenbat aldiz eskatu behar zaizkie ikasleei etxerako lanak?
- Aste batzuetan asteartean zinera joaten naiz, beste batzuetan ostiralean.
Noiz joaten zara zinera?